

SANTA TERESAREN GUTUNAK SARRERA

Aurreko idazkietan, *Barne Gazteluan* batez ere, Jainkoarekin harreman estuan, haren maitasunak oso-osoan harturik eta Jainkoagan murgildurik ageri zaigu Teresa. Baina haren Jainko-maitasuna ez da beraren baitan agortzen. Alderantziz, berak bizi zuena besteengana zabaldu beharra sumatzen du; altxor hori ezin du ezkutuan eduki. Ez zaio eman berarentzat soilik, partekatu dezan baizik.

Horregatik, ia kontraesana badirudi ere, grazia mistiko gorenak dituenean eta batez ere *Barne Gaztelua* idazten ari denean, orduantxe du fundazioen eta gizarteko harreman eta komunikazio ekintzarik oparoena. Honen harira, sarrera orokorrean hau diogu: “Teresarenean ez da guztia espiritual eta goi-mistikakoa; gizatasunik beteena darie haren hainbat orrialderi, batez ere Fundazioen eta Gutunen sortetakoei”. Eta beheraxeago hau dator: “*Fundazioak* eta *Gutunak* idazten dituenean, gizarteko arazoetan sartu-sartua dabil, garai hartako pertsonekin etengabeko harremanetan”.

Gutunak ere, gainerako idazkiak bezala, berandukoak dira. Badakigu haren idazlanetatik lehenengoa *Bizitza Liburua* dela, 1565ean idatzia, Autoreak 50 urte bete ondoren. Data hori baino lehen, hiru idazki txiki besterik ez zizkigun utzi, *Arimako Kontakizunen* lehenengo hirurak, 45 urte zituenetik 50 bete bitartean idatziak.

Jainkoaren esperientziak adierazi beharra izan zuen, ezohikoak eta apartekoak zirelako. Aitor-entzule eta aholkulari

al Rey don Phelipe el 2^o 25
 la gran del fto sea fe pre co. v. mag
 es todo con ar tu pua e comeda do a me. tro
 feno los cofes de la faga do orden de me. tra
 feno y mpran do la gran nece. fidad q. tiene.
 de q. es de m. p. n. g. p. i. o. r. q. d. i. o. s. a. c. o. m. e. n. c. a. d. o. s. e. l. l. a. n. o.
 feno y feno. f. e. g. i. o. q. e. l. m. e. d. i. o. m. e. p. r. a. m. e. t. r. o.
 f. e. m. e. d. i. o. s. q. d. v. m. a. g. e. n. t. e. d. a. c. l. o. q. c. o. n. f. i. s. t. e. s.
 t. u. r. y. a. d. e. l. t. o. d. o. a. p. u. t. a. d. o. e. f. t. e. e. d. i. f. i. c. i. y. a. n. f. e. m. e. d. i. a.
 f. o. r. t. e. c. a. l. g. a. d. o. s. c. o. n. y. r. e. a. d. m. e. n. t. o. s. q. u. a. r. e. n. t. o. a. n. o. s.
 q. y. b. i. t. o. e. t. r. e. e. l. l. o. s. y. m. i. r. e. s. d. e. t. o. d. o. s. l. o. s. c. o. f. e. s. c. o. m. y. c. o.
 c. l. a. r. a. n. a. d. e. q. f. i. n. o. f. e. a. g. a. p. r. o. v. i. n. g. i. a. p. a. r. t. e. d. e. d. e. s. c. a. l. y.
 y. c. o. n. b. r. e. d. e. d. a. d. q. f. e. a. c. e. m. u. c. h. o. d. a. n. o. y. t. e. n. g. o. p. o. r. y. p. o. f. i.
 b. l. e. q. p. u. e. d. a. y. a. d. l. a. n. t. e. c. o. m. o. e. f. t. e. e. t. a. e. m. a. n. o. s. d. e.
 v. m. a. g. i. s. t. r. o. d. e. o. q. l. a. d. i. a. f. e. n. m. e. t. r. a. f. e. n. o. i. a. l. a. g. u. e. r. i. d. o.
 t. o. m. a. n. p. o. r. a. p. a. r. o. p. a. e. l. f. e. m. e. d. i. o. d. e. f. u. o. r. g. e. n. e. m. e. a.
 t. r. e. v. i. d. o. a. c. e. r. e. f. t. o. p. a. f. u. p. l. i. c. a. d. v. m. a. g. i. s. t. r. o. p. o. r. o.
 m. o. d. e. m. e. t. r. o. f. e. n. o. i. y. d. e. f. u. g. l. o. r. i. o. f. a. m. e. d. i. o. m. a. d. e.
 f. e. a. g. a. p. o. r. q. e. d. e. n. o. i. n. o. e. l. p. a. t. a. t. e. e. s. t. o. r. d. a. r. l. o. q.
 n. o. p. a. r. a. p. o. c. o. r. y. c. o. n. v. e. n. j. e. t. e. f. i. n. a. d. e. n. e. n. g. u. n. o. f. i.
 n. o. b. i. e. d. e. t. o. d. o. s. m. a. n. e. r. o. s. a. r. t. o. m. a. z. i. a. l. c. a. f. o. f. i. e. e. f. t. o.
 p. r. i. n. c. i. p. i. o. s. f. e. a. g. a. g. a. f. e. a. l. m. p. d. e. s. c. a. l. g. o. q. l. l. a. m. a. g. i. a.
 c. i. a. n. q. y. o. c. o. m. e. d. i. o. a. o. i. a. y. a. q. m. o. g. o. m. e. a. e. c. h. o.
 a. r. t. o. a. l. a. b. a. r. a. m. y. t. r. o. f. e. n. o. i. l. o. q. a. d. a. d. a. a. q. l.

Felipe II. ari eginiko gutun autografoa

espiritualek bultzaturik batetik, eta Ávilako San Josereneko bere alabek eskaturik bestetik, ia ustekabean, barruko kontu horiek idatziz jartzeari ekin zion. Maistra espiritual berdingabe bihurtuko da eta hortik aurrera ez zuen etengo ekoizpen espirituala, bere barruak, inguruak eta premiek hartaraturik. Gutunak idaztea ere ingurumari horretan sortuko da. Ez da, oraingoan, fenomeno mistikoak adierazi beharra, ezta barruko indar profetikoaren ondorioa ere.

Batez ere komunikatzeko idazten ditu gutunak. Arima irekia zuen. Bakardade zalea bazen ere, giza mailan komunikatzeko bideak behar eta nahi zituen. Zolia zen gertakariei usaina hartzen, bizia zen eta zentzu praktikoa finekoa. Hala ere, adiskide eta konfiantzazko aholkularien babesa bilatzen zuen. Azken batean, komunikatu beharra; era askotako pertsonekin: teologoekin, ahizpa erlijiosoekin, goi-mailakoekin, herriko merkatariekin, jende xumearekin. Familian, adiskideen artean, erlijioso bizitzan... egunero izaten zen ahozko komunikazioaren luzapen gisa zetorren gutunak idaztea.

Baina laster batean, ingurumari hori zabaldu egingo zaio. Bizitzak berak jarriko du Teresa ekintza korapilatsu eta erantzukizun handietako tranpal gainean. Harrigarria bada ere, emakumea oso gutxitzat hartua zen historiako une hartan, lider izaera aitortu zitzaion, karmeldarren erreforma egite-rakoan mojen buru ez eze fraideen buru ere izan baitzen. Horregatik, mojek soilik ez, fraideek ere Teresa dute fundatzaile eta ama.

Gutunak idaztea pozgarri eta nekagarri

Harreman-sare zabala izatera etorriko da laster batean, Gaztela gurutzatuz eta hango mugak gaindituz, orduko gizarte-mailarik desberdinenetara iristeraino. Horrela, sare horretakoek komunikazio-lotura antzeko bat izango dute gure

Santarengan. Sare eta eginbehar horrek harrapaturik bezala ikusten du bere burua.

Egia esan, era-erara datorkiona da, berez dariona; gozo eta pozgarri zaiona, tertzioan izanez gero. Baina hori da kontua: monasterio eta kontenplazio bizitzako hainbat astiune zeregin horri eman behar izaten zizkiola, batzuetan, loari hainbat ordu kendu beharra izateraino. Beraren gaixozain eta idazkaria zen ahizpa Ana San Bartolomerena hau diosku: “Batzuetan gutunei erantzuten jardun behar izaten zuen goizaldeko ordu biak arte; une horretan oheratu ohi zen eta handik bi ordura iratzartzeko agintzen zuen” (BMC 35, 391). Hau dio berak: “gutun hauek idaztea baino gogotsuago egiten dut, hainbesteko zalapartak jota uzten bainau. Ez dakit nola atera dudan hainbeste idazteko astia, eta Jesusentzat ere izaten dut, bera baita gauza guztietarako indarra ematen duena” (139. gut., 1. zenb.). Beste behin, Maria San Joserenari hau idazten dio: “Jainkoak ordain biezaio berorri, ene alaba, gutunak idazteko duen arreta, horrekin bizi bainaiz” (161. gut., 1. zenb.). Aita Graciáni egindako gutunean diotso, zoramena izan dela hainbeste gutun jaso baititu: “Bi egun hauetan ezin kontatuzkoak izan dira etorri zaizkidanak eta nahasirik naukate” (125. gut., 6. zenb.). Eta azkenik, hau ere Maria San Joserenari idatzia: Idazten hasten naizenean, “pena da ez dakidala amaitzen” (176. gut., 10. zenb.).

Gutunen edukiak

Hortik, Ama Teresaren fundazioak gehitu ahala, komunitate batetik bestera harremanen beharra ere biziago sumatzen da. Bera dago berriro ere erdigunean. Karmelik karmelera gutunak idazteak komunikazio-sarea eratzen du eta fundatzailearen espiritua guztiengan eta bakoitzarengan dago arnasa ematen, suspertzen, haien bizitzaz eta egoeraz interesatzen, eta behar denean okerrak zuzendu eta perfekziorantz bidera-

tzen. Komentuetako barruko arazoak, mojen gaixotasun eta minak, bokazioak, batetik bestera elkarri bidalitako oparitxoak, diru-kontuak, debozioko gauzak, estanpak, sendatzeko bideak, irakurgaiak, klausuran bizi diren mojen eguneroko gauzatxoak agertzen dira gutunetan. Azken batean, ahozko komunikazioaren luzapena dela esan dugu gutunak idaztea.

Baina komunitateen eguneroko gauzatxoez gainera, hainbat kontu agertzen dira gutunetan, askotarikoak agertu ere, bizitzan bezala: fundazio berriak, horretarako etxeen erosketak, bidaiak, legelariekin eskumen kontuak argitzea, diruak lortzea, Madrileko gortean negoziatzea, karmeldar oinutsen probintzia eraiki ahal izateko Erroman baimena tramitatzea, monasterio batzuen egoera ekonomiko larria hobetzeko herentziak konpontzea eta sartzen ziren etxe oneko mojen doteak bideratzea, otoitzerako aholkuak ematea eta horrelako gauza asko eta asko.

Dena dela, gutunetan agertzen den Teresa ama arduratsua eta adoretsua da, berak beste askoren laguntzaz aurrera eramane duen eta gidatu duen erreforma ongi oinarritu eta finkatzeko eginahalak egiten dituena. Hori da haren borroka. Ez karmeldar oinutsen erreforma mehatxupean zegoenean babestea soilik, baita komunitateetan etorkizunerako oinarri eta printzipio onak ezartzea ere. Horretarako asko begiratzen zion ama prioreak konfiantza osoko, zentzu handiko, buru argiko eta santuak izateari.

Felipe Sega nuntzioak, alderdi bateko, hau da, karmeldar oinetakodunen informazioaz baliatuz, karmeldar oinutsen erreforma guztiz galtzeko arriskuan jarri zuenean, gure Santak erakutsi zuen kemena harrigarria izan zen. Hariak mugitzen hasi zen eta eragina izan zezaketen pertsonengana jotzen: Felipe II.a, Ordenako aita jenerala Joan Bautista Rubeo, Felipe Sega nuntzioa bera agertzen dira, besteak beste, haren gutunen hartzaileen artean. Begirune handiaz idatzitako gutunak dira; darabilen dialektika fina eta era berean irmoa, nahita ere

kontra egiten zaila. Dialektika hori nolakoa zen ikusteko adibide on bat –oraingoan ez da gutunezkoa aurrez aurrekoa baizik– *Fundazioak* liburuan dator. Toledoko fundazioa ia egintzat zuenean eta bera beste zereginik gabe hara joana, zailtasunak sortu ziren eta gobernariak eta hiriko kontseiluak ez zioten baimenik eman nahi. Atzera bota nahi zuten eta berak honela kontaktzen digu:

“Nik ez nekien zer egin, beste zereginik gabe horretarakoxe etorri eta nabarmena izango bailitzateke fundazioa egin gabe joatea. (...) Eta horrela, Gobernariarekin hitz egitea erabaki nuen, eta haren etxearen ondoan den elizara joan nintzen eta abisua helarazi nion, arren har nintzala hitz egiteko. Bi hilabete baino gehiago ziren baimena lortu nahirik nenbilela eta egunean baino egunean okerrago zen. Haren aurrean izan nintzeanean, esan nion, gauza gogorra zela halako laztasun, perfekzio eta itxuran bizi nahi zuten emakumeak egotea, eta halakorik ezer igaro gabe atsegin artean zeudenek, gure Jaunaren zerbitzu hain handiko obrak eragotzi nahi izatea. Hauek eta beste gauza asko esan nizkion Jaunak ematen zidan adore handiaz. Horrek hainbesteraino ukitu zion bihotza, non beragandik alde egin baino lehen, baimena eman baitzidan” (*Fund.* 15, 5).

Gutuneren egitura

Teresaren edozein gutun hartzea aski da haren egituraz ongi jabetzeko. Laua da eta askotarikoa. Paperean eta distantziara izaten den solasaldia; baina beraren esateko eta tratatzeko era ongi agertzen duena.

Hala ere, gutunak bere eskakizunak ditu. Mugak ezartzen dizkio hitzari. Mezua egituratzea ezartzen dio batez ere. Ikus dezagun laburki.

Idazpurua eta hasierako agurra. – Teresaren gutuna hutsik gabe hasten da gurutzearen seinaleaz eta Jesusen izenaz. Biak “jhs” (minuskulaz) anagrama klasikoaren barruan sartzen dira, berak “Jesus” irakurtzen duena, eta erdian *b* letraren goial-

dean gurutzea marrazten du. Askotan agurra ere horrela hasi ohi da: “jhs (Jesus) izan bedi berorren ariman”. Hartzailearen izena ez du hasieran jartzen, gutun-azalean baizik. Agurra luzatu egiten du askotan, liturgi aroaren erreferentzia agertuz edo hartzailearen egoera: Pazko zorionak nahiz doluminak emanez, hari esker ona agertuz etab.

Gutunaren gorputza. – Solasaldiari ekiten dio. Bestearen erantzuna denean, jasotako gutunaren gaia aipatzen du eta harekin lotzen; horrela, irakurlea ohartzen da solasaldiaren beste parteaz. Gaia askatasunez darabil, etenaldiak, errepikapenak eginez eta gauza batetik bestera erraz igaroz. Gaia nekez izan ohi da pertsona bakar bati dagokiona; edozein gutunen agertokitik ia beti igaroko dira hainbat pertsona. Askotan gehiago luzatu nahia aitortzen du, baina astirik ezaz amaitu beharra.

Amaierako agurra eta data. – Hasierako agurra bezala amaierakoa ere erlijiozko esaldi batez osatzen da: “Jaunak eman biezaio berorri osasuna eta gorde biezagu” (Antonio Gaitáni). Data adierazterakoan, ez du urterik jartzen; hila eta eguna soilik; zenbait kasutan jai liturgiko edo eguneko santu nahiz santaren erreferentzia ezartzen du; zenbakiak ez ditu arabiar zifraz idazten erromatarrez edota hitzez baizik.

Sinadura. – Gehienetan “Teresa Jesusena” sinatzen du; batzuetan “Teresa Jesusena, karmeldarra”. Lehenengo bi gutunetan: “Teresa Ahumada”. Sinatzailearen izenak ez darama inolako apaindurarik ez izenpe marrarik. Ia beti apaltasunezko edo maitasunezko aitorpena doa sinaduraren aurretik: “Berorren mirabe apala”, “Berorren mirabe zintzoa”, “Berorren zerbitzari apal eta alaba”, “Berorren gorentasunaren mirabe eta agindupeko apala”, “Berorren agurgarritasunarena”...

Idazki-ondokoa. – Teresaren gutunen ezaugarrietako bat, sinaduraren ondoren, idazki-ondoko bat edo gehiago gaine-

ratzea izan ohi da. Bi solaskidek elkarri agur egin eta berriro solasari ekitea bezala da. Teresarengan ez da batere arraroa.

Helbidea eta gutun-azala. – Hartzailearen izen-deiturak eta helbidea jartzen zituen gutun-azalean. Bere iritzien aurka, hotsandiko tituluak jarri behar izaten zituen batzuetan, gizalege, adeitasun eta garai hartako joerari amore emanaz. Esaterako, Teutonio Braganza jaunari hau esaten dio: “Nik diotsot, benetan, hurrengoan halako tituluez idazten badit, ez diodala erantzungo (...), titulu hura nire Ordenari ez dagokiona delako” (68. gut., 1. zenb.). Aita Anbrosio Marianori hau diotso: “Orain, agurgarria eta anderea tituluak niri ematea otu zaio? Jainkoak barka biezaio, berori edo ni oinetakodun bihurtu garelait baitirudi” (134. gut., 1. zenb.).

Besteren eskuz idaztea

Teresarentzat gutuna, hitza bezala, gauza pertsonala da. Gutun guztiak autografoak izatea litzateke bidezkoena. Nola utzi norbere hitza edo luma beste bati?

Gutun asko izaten zituen idazteko eta erantzuteko eta beraren osasun ahulak ez zion uzten guztiak bere eskuz idazten. Horregatik, laguntzaileengana, idazkariengana jo behar nahitaez. Gehienetan hartzaileei barkamena eskatzen die, halabeharrez besteren eskuz idazteagatik. Lehenengoz 1568an jo behar izan zuen, Río de Olmosen (Valladolid) izan zuen gaixotasunaren ondorioz: “Ez dut ez astirik ez indarririk luze idazteko, gutxiri idazten baitiet orain neure eskuz” (16. gut., 1. zenb.). Bi urte geroago, gauza bera gertatzen zaio Toledon Ávilarentz irten aurretikoan: “Besteren eskuz idazten dut eta barka beza berorrek, odol-ateratzeengatik ahul nago eta ez dago burua gehiagorako” (28. gut., 2. zenb.). Batzuetan gutunari berak ematen dio hasiera, idazkariak jarraipena eta berriro ere berak, amaiera (222. gut.).

Baina besteren eskuz idatzi beharra sarri-sarri gertatzen zaio, ia ohikoa izateraino, 1577ko otsailaren hasieraz geroztik gaueko orduetan lan gehiegi egitetik sortu zitzaion osasun-krisi larriaren ondorioz. Teresaren idazkari eta laguntzaile zerbitzua betetzen lau moja karmeldar agertzen dira, gutxienez. Toledon, beraren iloba Beatriz Jesusena. Ávilan, Ana San Pedrorena flandestarra (Wasteels) eta Santaren beste iloba bat, Isabel San Paulorena. Eta azken fundazio eta bidaietan, Ana San Bartolomerena, gure Santaren gaixozain eta idazkari fin eta zintzoa. Noizbehinka Teresatxo Jesusena (Cepeda) bere ilobari uzten dio luma gure Santak; baina, dirudienez, honen jarduera ez da gainerako idazkariena bezalakoa. Izebak luma uzten dio gutuna bere kasa idatzitako idazki-ondokoaz osa dezan; horrek bigarren idazki-ondokoa gehitzeko bidea emango dio Teresari: “Atsegin izan zait Teresaren mezua. Orain sinesten dut ez dagoela maitasuna baino erremedio horberik. Jainkoak eman diezagula Haren Maiestatearen bidez” (427. gut., 10. zenb.).

Nolakoa zen idazkari hauen lana? Aditu batzuen iritziz, berak diktatzen diena paperean idatzi baizik ez zuten egiten. Ana San Bartolomerenaren kasuan, behintzat, ez dirudi horrela denik. Hain ongi elkar hartzen zuten zero, Anak idazten zuena berak idatzizat hartzen omen zuen. Horrela diosku behin: “Ana San Bartolomerena idatzi eta idatzi ari da; asko laguntzen dit” (425. gut., 3. zenb.).

Gutunen zoria

Gutunak, gehienetan, bizi laburrekoak izan ohi dira, galkorak, iraungikorak. Hala izan dira gure Santarenak ere. Tamalgarria da hark idatzi zituen milaka gutunetatik hain kopuru txikia gorde izana. Gure argitalpen honetan 469 gutun biltzen dira; gutunen eranskinean biltzen diren beste 18 puska gehituz gero, 487ko multzoa osatzen dute. Zer da hori, idatzi



Amberesko moja karmeldarren komentuko santa Teresaren koadroa

zuen multzo harrigarriaren ondoan? Hoberenean ere, altxor guztiz estimagarria, baina urriegia haren lumaren ekoizpen osoa kontuan hartuz. 14 urteren buruan, 1568tik 1582ra artean, batez beste egunean bi gutun idazten bazituen, 10.220 gutun idatziko zituen; gorde direnen kopurua, 18 puskak ere kontaturik, idatziko zituenaren % 4,76 bakarrik da. Adituek diotenez, ziur asko, batez beste egunean bost gutun idatziko zituela kontuan hartuz gero, 25.550 gutun idatziko zituen; beraz, gorde direnek horren % 1,89 bakarrik egiten dute.

Gutun berri bat Gipuzkoan

Noizbehinka ezusteko pozzgarriak gertatzen dira eta, orain-goan, santa Teresaren jaiotzaren bosgarren mendeurrenean hain zuzen ere, haren gutun bat agertu da; non eta Gipuzkoako Aian, Laurgain jauregian. Beraz, oraingoz esku pribatuetan dagoen gutuna da.

Ez da luzea. Lau orrialde dituen paper tolestua da; lehenengo bi orrialdeak ama Teresak idatziak dira, eta hirugarren orrialdean amaitzen da 11 lerrorekin; laugarren orrialdean, berriaz, gutunaren helbidea dator.

Testua oso ongi irakur daiteke; hala ere, badu zailtasun bat: erdialdean, hau da, gutuna tolestean zen gunean, goitik behera, ia lerro guztietan letra bat edo bi (hiru) falta dira; hutsune horiek osatzea lortu da. Datarik agertzen ez badu ere, 1576ko irailaren erdi aldean idatzia dela ateratzen da, edukia eta agertzen diren erreferentziak kontuan izanik. Beraz, argitalpen honetako gutunen zerrendan dagokion lekuan kokatu dugu: 124.a da.

Luis Baraiazarra Txertudi